

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai apirilaren 12an

## Atzera begira. Giorgio Morandi eta Antzinako Maisuak

Babeslea:



Atsegin handia da niretzat *Atzera begira. Giorgio Morandi eta Antzinako Maisuak* aurkeztea Guggenheim Bilbao Museoan; izan ere, erakusketa honekin, Iberdrolak beste behin berresten du kultur sustapenarekiko duen konpromiso sendoa. Artista horren obran hainbat prisma baliatuz barneratzeko aukera ematen dio erakusketak bisitariari: Morandiren ekoizpenak zuzenean behatu ditzake nahiz haren erreferente piktorikoen errepasso osoa ikusi.

Hala, Museoak XX. mendeko margolari italiarraren obra-multzo zirrargarria biltzea lortu du, hura txunditu eta haren lanean eragina izan duten beste garaietako artisten ekoizpenekin batera. Modu horretan, Giorgio Morandi omentzeaz gain, hark miresten zituen iraganeko maisuei ere egiten die gorazarre.

Erakusketako ibilbidean zehar, Museoko aretoek denboran zehar bidaiatzeko aukera ematen digute, artearen historian barrena; izan ere, Morandiren natura hil ezagunak —horiei eskaini zien nagusiki ekoizpena— eta hark eredutzat hartutako maisuen lanak lotzen dituen haria aurkezten digute: maisu horien artean, XVII. mendeko Espainiar Eskola, Boloniako Eskola edo Jean-Baptiste-Siméon Chardin, XVIII. mendeko margolari frantses bikaina.

Bereziki interesgarria suertatzen da Morandiren konposizio zainduak iraganeko iturrietatik nola edan zuten behatzea. Denboragabetasuna, azken finean, giltzarria da haren lanei erreparatzeko orduan; artistaren garaia zegozkion artelanak ziren inondik ere, baina aldi berean, kutsu klasiko sakonekoak.

Nazioarteko arte-zentrorik esanguratsuenetako batekiko elkarlanaren bitartez, Garapen Jasangarrirako 11. Helburuari erantzuten dio Iberdrolak; hain zuzen ere, beste ekimen batzuen artean, ondare artistiko eta kulturalaren artapen eta zaharberritzea sustatzen ditu ekimen horrek, hiri jasangarriagoak lortzeko helburuarekin.

Nazio Batuek 2030. urterako definitu zituzten Garapen Jasangarrirako 17 Helburuetako bat da hori; gure erakundeak bere enpresa-estrategian eta Estatutuetan txertatu ditu xede horiek, Gizarte Dibidendo deitu dugunaren baitan: jendartearentzat balioak sortzeko helburuarekin gauzatzen ditugun ekimen guztiak biltzen ditu kontzeptu horrek.

Ziur nago erakusketa honek artezale ugari erakarriko dituela, eta arrakastaz beteko duela beste behin Guggenheim Bilbao Museoa, zeina gure herrialdean eta mundu osoan erreferentziazko kultur erakundea bilakatu baita. Hori dela-eta, antolatzaileak zoriondu nahi ditut, proiektu hau egia bihur zedin egindako lan bikainagatik.

Ignacio S. Galán  
Iberdrolaren Presidentea

***Atzera begira:  
Giorgio Morandi eta Antzinako Maisuak***

- 2019ko apirilak 12–urriak 6
  - Komisarioa: Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoko arte arduraduna, Giovanni Casini-rekin lankidetzan, eta honen aholkularitzarekin: Vivien Greene, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-eko Senior Arte-arduraduna, XIX. mendean eta XX. mende-hasieran aditua
  - Babeslea: Iberdrola
- 
- Giorgio Morandi margolari boloniarrek eguneroko objektuak irudikatu zituen bere natura hiletan, eta mundutarra den guztia formarik aratz eta oinarrizkoenean kondentsatu zuen bere konposizioetan.
  - Erakusketa honi esker, lehen aldiz toki berean ikusi ahal izango ditugu Morandiren margolan nahasezinak eta haren ibilbidean zehar haren jarduera artistikoan eragina izan zuten Antzinako Maisuen zenbait obra.
  - Hiru aretoetako bakoitzean, elkarrizketa bat sortzen da Morandiren margolanen eta Antzinako Maisuetako batzuen obren artean, eta italiarrak aitzindariengandik bereganatu zituen obrako alderdi aipagarrienak nabarmentzen dira: XVII. mendeko Espainiako pinturaren dramatismoa, *seicento* italiarreko naturalismoa, eta Chardinen intimitatea eta geometria.
  - Miresten zituen Antzinako Maisuen obretako xehetasun batzuetan jarri zuen arreta bereziki Morandik; besteak beste, hauetan: Grecoren loreak, formen eraikuntza Zurbaráren argian oinarrituta, XVIII. mendeko Crespi margolari boloniarren konposizioetako xehetasun xumeak eta Chardinen karta-gazteluak.

Guggenheim Bilbao Museoak *Atzera begira: Giorgio Morandi eta Antzinako Maisuak* dakarkigu, XX. mendeko margolari italiar garrantzitsuenetako baten obra zeharkatzen duen ibilbide zabala, agerian ipintzen dituen hark margotu zituen natura hilen eta artearen historiako erreferentzia nagusietako batzuen arteko harremanak. Iberdrolak babestuta, erakusketa honek lehen aldiz bilduko ditu Morandiren aparteko pinturetako asko eta lau hamarkadatan zehar (hau da, gerrarteko garaitik 1960ko hamarkadaren hasierara) haren jarduera artistikoan eragina izan zuten Antzinako Maisuen obretako batzuk.

“Sentitu nuen nire bidea aurkitzeko mendeetan zehar pinturak sortutako lan garrantzitsuenek bakarrik lagun nintzaketela”. – Giorgio Morandi.

Morandik zorrotz aztertu zuen artearen historia eta erreferentzia ugari hartu zituen kontuan sortzaile gisa prestatzeko. Erakusketa honek haren hiru arbaso aztertzen ditu, jatorri desberdinekoak, eta XIX.

mendearen aurreko erreferentzia premodernoetan jartzen du arreta: XVII. mendeko Espainiako pintura eta natura hilaren tradizioa; XVI. mendetik XVIII. mende-hasierara bitarteko margolari boloniarrek; eta XVIII. mendeko Jean-Baptiste Siméon Chardin artista frantziarraren natura hilak. Atal bakoitzak aukera eskaintzen du beste ikuspegi batetik heltzeko Morandiren obraren ezaugarri aipagarrienetako batzuei: espainolen dramatismoa, *seicento* italiarreko naturalismoa, eta Chardinen intimitatea eta geometria.

Giorgio Morandi (1890–1964) Bolonian jaio zen; 1920tik, objektuen (botilak, pitxerrak, kutzak eta potoak) eta paisaien errealitatea ikertzen aritu zen, eta haiek funtsezko formetara mugatu zituen. Artistak behin eta berriro konfiguratu zituen objektu gogokoenak, baina apur bat desberdin, eta etxeko objektu arruntak irudikatzeak eskaintzen dituen aukera amaigabeetan jarri zuen arreta. Haren pintura figuratiboa izan zen, eta intentsitate, edertasun eta denboragabetasun paregabea dituelako bereizten da XX. mendeko gainerako arte piktorikotik. Morandiren natura hilak eguneroko objektu arruntenetan oinarrituta daude; oso pertsonalak dira konposizioari, kromatismoari eta argiari dagokienez, eta muturreraino eramaten dute artistak purutasunerako, kontzentrazioarako eta esentzialismorako duen grina.

Bere ibilbidean, Morandik Europako pintura-eskola ugari aztertu zituen. 1920ko hamarkadatik 1960ko hamarkadara bitartean egin zituen natura hilek aztertu zuen artearen eragina erakusten dute. Hala ere, Morandik inspirazio-iturri izan ziren margolan haietako gutxi batzuk baino ez zituen bertatik bertara ikusi museo eta erakusketetan; gehienak argazki-erreproduzioen, liburu eta aldizkarietako ilustrazioen edo arte-historialarien bidez ezagutu zituen.

## ERAKUSKETAREN AURKEZPENA

### 305 aretoa. Morandi eta natura hilaren tradizioa

Italian Espainiako Urrezko Mendeko artistak berraurkitu zituztenean izan zuen Morandik haien berri. Artistaren lagun zen Roberto Longhi arte-kritikari eta -historialariak aurretik ere aipatu zituen Diego Velázquez eta Francisco de Zurbarán bere idatzietan. 1910eko hamarkadaren hasieran, Ardengo Soffici artista eta kritikari florentziarrak Zurbaránekiko interesa berpiztu zuen, eta abangoardistatzat jo zuen bere *La Voce* aldizkari modernoan argitaratu zuen artikulu batean; Morandik ere irakurtzen zuen aldizkari hura. 1930ean, Longhi *Gli antichi pittori spagnoli della collezione Contini-Bonacossi* erakusketaren komisarioa izan zen Erromako Arte Modernoko Galeria Nazionalean. Antzinako Maisuen Italia osoko bildumarik handiena da, eta Grecoren, Murilloren, Velázquezen eta Zurbaránen margolan espainolen multzo ikusgarri bat du. Oso leku esanguratsuan kokatuta dago, XIX. eta XX. mendeetako arteari buruzko museo italiar nagusia baita; hortaz, margolari horien obra bertan erakusteak “abangoardiako” artistatzat jotzen ditu. Contini-Bonacossiren erakusketarako katalogoaren sarreran, Longhi nabarmendu zuen erakusketa oso garrantzitsua zela batez ere artista garaikideentzat, eta Zurbaráni buruz esan zuen “onenetako bat izan zela formak argiaren bidez sortzen, Caravaggioren atzetik eta Cézanneren aurretik”; hala, artista protomodernotzat jo zuen.

Morandik Espainiako Urrezko Mendeko artistekiko izan zuen interesa agerian geratu zen 1918–19 aldera Grecoren inguruan izan zen gertakari batean. Morandiren lagun Giuseppe Raimondi literatura-kritikariak

azaldu zuenez, margolariaren etxera joan zen batean, Grecori buruzko liburu txiki bat ikusi zuen hark; bertan, posta-zigilu baten tamainako Jasokundearen edo Deikundearen erreproduzio txiki bat seinalatuz, Morandik aingeruen eta santuen oinetan zeuden lore batzuetara erakarri zuen lagunaren arreta, eta honela esan zuen: “Ezein pintore modernok ez du horrelako lorerik pintatu. Renoirrek bakarrik beharbada...”. Grecok margotutako loreei eskaini zien arreta bere lore-pinturetako batzuetan hauteman daiteke. Lehenengo areto honetan, Morandiren pitxerrak eta Grecoren XVII. mendeko kopia bat jartzen dira elkarren ondoan; horrek garbi uzten du Antzinako Maisuaren abilezia landareak irudikatzeke orduan, huntza kasu honetan. Areto honetan Morandiren natura hil batzuk ere badaude, eta zenbait artistaren obretako konposizio harmoniatsua ekartzen digute gogora (besteak beste, Zurbaráñen eta Meléndezen obretakoa).

### 306 aretoa. Morandi. *Incamminato* berri bat

1935ean, Roberto Longhik Boloniako Eskolaren historia argitaratu zuen, *Momenti della pittura bolognese* izenburupean. Bertan zioenez, Boloniako pinturaren ezaugarri nagusia naturalismoaren interpretazio berehalako eta espresiboa da. Esanguratsua da bere analisisa Giorgio Morandirekin bukatzea eta haren lana *incamminato* (bideratu) berri batena balitz bezala deskribatzea. Longhiren historiaren arabera, *trecentoaren* eta Vitale da Bologna-k sortu zuen arte antiklasikoaren eta espresionistaren ondoren, “heroiak” hiru Carracci anaiak izan ziren: Annibale, Agostino eta Ludovico, XVI. mendearen amaieran eta XVII. mendearen hasieran aktibo egon ziren margolari barrokoak. Carraccitarren postulatuek indarrean jarraitu zuten 1582 aldera sortu zuten arte-eskolan, “Accademia degli Incamminati” izenekoan; bertan, pintura-estilo moderno bat irakasten zuten, ezarritako tradizio artistikoetan oinarrituta sortua. Era berean, Longhik nabarmendu zuen Morandik iragana ikertu zuela pintura modernoaren “idortasun guztiz problematikoaren” bidez bere bidea aurkitzeko.

Morandik aurrekari barrokoetan eta ondorengo eraginetan jartzen du arreta, baina irudi horietako elementu oso zehatzetan. Artistaren lagun Francesco Arcangeli arte-historialariak gogoan du nola, Boloniako Pinakoteka Nazionalea bisitatzen ari zela Guido Reniren *Ama Birjina aintzan Haurra besoetan duela eta Boloniaren zaindariak* maisulanari begira zegoela (*Izurriaren erretaula* ere deiturikoa, 1630), Morandik koadroaren behealdean dagoen xehetasun txiki eta hutsal bati erreparatu zion: Boloniako hiriaren irudikapen bat; eta xehetasun haren tratamendua konposizioari buruz zituen ideiekin erlazionatu zuen. Are adierazgarriagoak dira Boloniako artista Giuseppe Maria Crespiren lau koadro txikiak; Longhik *Momenti della pittura bolognese* liburuan aipatu zuen artista hura, haren jeinutasunagatik. Crespiren genero-eszenek natura hilak irudikatzen dituzte askotan. Areto honetan, Crespiren margolan batzuk ageri dira Morandiren natura hilekin elkarriketan.

### 307 aretoa. Espazioa eta materia: Chardin eta Morandi

Antzinako Maisuen artean, Morandik sakonki miresten zuen Jean-Baptiste Siméon Chardin genero-margolari frantsesa. Morandik adimen profetikoa zuen, XVIII. mendeko artistari hein handi batean ezikusia egin baitzioten Italian Bigarren Mundu Gerra baino lehen. Argitalpenen bidez Chardini buruz egin zituen lehenengo ikerketetan, baliteke Morandik Henri de Pureaux arte-kritikariak 1911n *La Voce* abangoardiako aldizkarian argitaratu zuen artikulua irakurri izana; bertan esaten zen Chardinek autoerreferentziako natura hil modernoaren asmatu zuela. Morandik 1920ko hamarkadan ikusi zituen, lehen aldiz, Chardinen margolanen

erreprodukzioak, zenbait aldizkari frantsesetan (esaterako, *L'Amour de l'Art*). Garai hartan, 1932an, *Valori Plastici* aldizkariak Chardini buruzko monografia baten edizioa kaleratu zuen, Italian, André de Ridderrek ilustratutakoa.

Morandik De Ridderren ilustrazio haietako batzuk zintzilikatu zituen estudioko hormetan, etengabe begi bistan izateko. Are esanguratsuagoa da 1956ko ekainean Winterthurreko Kunstmuseum-era egin zuen bisita. Bere egonaldian, Oskar Reinharten bilduma ikusi zuen artistak, baita bi Chardin ere: *Natura hila granadekin eta mahatsekin* (1763) eta *Karta-gaztelua* margolanaren bertsio bat (1735 baino geroagokoa). Azken hartan, Morandik arreta berezia jarri zuen "karten antolaketan", Kunstmuseum-eko zuzendari Heinz Kellerrek adierazi bezala, artistarekin batera bisita egin baitzuen. Ondoren, Morandik zenbait obra erreproduzitu zituen, gogora dakartzatenak Chardinen *Karta-gaztelua* (ca. 1736–37) margolanean agertzen diren konposizio-alderdiak, bi artistek duten serialitatearen ideia nabarmentzearekin batera.

Areto honetan, Morandiren natura hil batzuk eta antzeko konposizio-elementu batzuk dituen Chardinen natura hil bat daude. Interesgarriagoak izango dira gazte bat karta-gaztelu bat eraikitzen irudikatzen duten Chardinen obrak. Morandik karta-gaztelu horien forma geometrikoak berdindu nahi ditu areto honetako obra askotan agertzen diren kutxen antolaketan.

## BIOGRAFIA

Giorgio Morandi (1890–1964) Bolonian jaio zen eta bertan zuen logela-estudioan egin zituen bere natura hil, loreontzi eta paisaia denboragabeak. 1907tik 1913ra bitartean Boloniako Arte Ederren Akademian ikasi zuen eta futurismo italiarrarekin kontaktuan egon zen epe labur batez, alegia, bere herrialdeko abangoardia ikonoklastarekin. 1919–1920an, *pittura metafisica* mugimendu iragankorreko zenbait figurekin bat egin zuen; besteak beste, Carlo Carrà-rekin, Mario Sironi-rekin eta Giorgio de Chirico-rekin. Denbora tarte horren ondoren, Morandi bilaketa artistiko pertsonal batean murgildu zen, natura hilaren generoa ikertuz, eta neurrizko haren konposizioetako objektu bizigabeei ia antropomorfoa den presentzia eman zien. Bigarren Mundu Gerraren ondoren nazioartean abstrakzioa sortu zen, eta ordena eta heterodoxia artistikoa itzuli ziren; Morandiren garai hartako obra sailkapen orotik kanpo geratzen da.

## DIDAKTIKA

Erakusketa honetako eremu didaktikoak zenbait behaketa-jolas aurkezten ditu, *Morandiren begiradak* izenburupean. Esperientzia honek artistaren zenbait obraren azterketa du abiapuntu, eta horren bidez, natura hiletik harantz autorretratu edo paisaiak ere ikus ditzakegu, maisu handiei begiratzen dietenak (besteak beste, Giovanni Bellini, Paul Cézanne, Giovanni Costa, Giotto, Nicolas Poussin eta Henri Rousseau). Esperientzia honetan, alderdi ugari ezagutuko ditugu: Morandiren formak, argia eta itzala erabiltzeko zuen modua, Boloniako arkitektura, haren teknikak (olio-pintura mihise gainean, grabatua, etab.), Florentziako museo edo galerietara egindako bisitak (esaterako, Uffizi) eta garaiko argitalpen edo postalaren bidez aztertu zituen obra klasikoak.

## Jarduerak

### Partekatutako hausnarketak

Museoko profesionalak egindako bisitaldi eksklusiboak.

- Arte arduradunaren ikuspegia: Petra Joos, erakusketaren komisarioa (maiatzak 8).
- Funtsezko kontzeptuak: Luz Maguregui, Hezkuntzako koordinatzailea (maiatzak 15).

\*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

### Zine-zikloa: "Alla morandi" zinema arratsaldeak (maiatzak 25-26)

Morandiren arrasto nabarmena duten zinematografia maisulanetako batzuk ikusiko ditugu: besteak beste, Federico Fellini, Luca Guadagnino eta Michelangelo Antonioni.

### Sormen-saioa: Morandiren natura hilari buruzko ikuspegi fotografikoa (maiatzak 17 eta 24)

Argazkilaritza-tailer honetan, natura hila izango da gonbidatu nagusia. Pitxerrak, kandelak, loreak, fruituak, garezurrak eta Elsie Ansareo artistak Morandiri buruz duen ikuspegi berezia; Museoaren Bilduman daude Ansareoren obrak.

## Azaleko irudia

Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1956

Olio-pintura mihise gainean

36 x 45,7 cm

Fondation Mattioli Rossi, Suitza

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019

## Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.eus](mailto:media@guggenheim-bilbao.eus)

[www.guggenheim-bilbao.eus](http://www.guggenheim-bilbao.eus)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) (prentsa-eremua).

Prentsak erabiltzeko irudiak  
*Atzera begira. Giorgio Morandi eta Antzinako Maisuak*  
Guggenheim Bilbao Museoa

### Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es](http://prensa.guggenheim-bilbao.es)) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

Prentsan erabiltzeko deskarga daitezkeen irudiek zehaztapen hauek bete behar dituzte:

- Erakusketarekin erlazionatutako artikuluetan soilik erabili ahal izango dira.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe.
- Ezin dira erabili azaletan, ezta promozioetan ere, irudien legezko eskubideak dituenak baimena eman ezean.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 35 90 08) edo posta elektronikoko bidez ([media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)).

1. Giorgio Morandi  
*Natura hila (Natura morta)*, 1920  
Olio-pintura ohol gainean  
30,5 x 44,5 cm  
Istituzione Bologna Musei/Museo Morandi  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



2. Giorgio Morandi  
*Natura hila frutarekin (Natura morta con frutta)*, 1927  
Olio-pintura mihise gainean  
27 x 38,5 cm  
Fondazione Magnani Rocca, Mamiano di Traversetolo (Parma), Italia  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



3. Giorgio Morandi  
*Natura hila (Natura morta)*, 1931  
Olio-pintura mihise gainean  
54 x 64 cm  
Fondation Mattioli Rossi, Suitza  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019





## 4. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1931

Olio-pintura mihise gaianean

42 x 42 cm

Fondation Mattioli Rossi, Suitza

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 5. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1936

Olio-pintura mihise gaianean

33 x 37 cm

Fondazione Magnani Rocca, Mamiano di Traversetolo (Parma), Italia

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 6. Giorgio Morandi

*Loreak (Lore-pitxerra) [Fiori (Vaso di Fiori)]*, 1947

Olio-pintura mihise gaianean

29,9 x 35,1 cm

Fondazione di Studi di Storia dell'Arte Roberto Longhi, Florentzia

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 7. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1951

Olio-pintura mihise gaianean

36 x 40 cm

Istituzione Bologna Musei/Museo Morandi

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 8. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1955

Olio-pintura mihise gaianean

35 x 40 cm

Fondation Mattioli Rossi, Suitza

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 9. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1955

Olio-pintura mihise gaianean

25,5 x 30,5 cm

Kunst Museum Winterthur, Heinz Keller doktorearen legatua, 1984

© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



## 10. Giorgio Morandi

*Natura hila (Natura morta)*, 1956

Olio-pintura mihise gaianean

40,7 x 36,2 cm

Augusto eta Francesca Giovanardi Bilduma



© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019

11. Giorgio Morandi  
*Natura hila (Natura morta)*, 1956  
Olio-pintura mihise gainean  
36 x 45,7 cm  
Fondation Mattioli Rossi, Suitza  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



12. Giorgio Morandi  
*Natura hila (Natura morta)*, 1949  
Olio-pintura mihise gainean  
30 x 45 cm  
Nahmad Bilduma  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



13. Giorgio Morandi  
*Natura hila (Natura morta)*, 1946  
Olio-pintura mihise gainean  
25 x 46,4 cm  
Nahmad Bilduma  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019



14. Giorgio Morandi  
*Loreak (Fiori)*, 1950  
Olio-pintura mihise gainean  
35 x 26,5 cm  
Fondation Mattioli Rossi, Suitza  
© Giorgio Morandi, VEGAP, Bilbo, 2019

